

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gehienez 40.000 euroko diru-laguntza Nafarroako Ardoaren Ibilbidea Produktu Klubaren handitze prozesua sendotzeko

*Helburua kalitatea oinarrian izanik eta ardoaren kultura helmugatzat hartuz antolatutako eskaintza turistikoa eskaintzea da*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Nafarroako Gobernuak Turismo eta Merkataritza Zuzendari Nagusiari Erdialdeko Garapen Partzuergoari 40.000 euroko diru-laguntza emateko baimena eman dio Nafarroako Ardoaren Ibilbidearen sendotze eta handitzeko ekintzak garatu ditzan. Hala onartu du gaur Gobernuak bilkuran.

Nabarmentzekoa da partzuergo horrek kudeatzen duela Nafarroako Ardoaren Ibilbidea, zeina 2016an Espainiako Ardoen Ibilbideen barruan zertifikatu zen (bi urtero berritzen da). Gainera, 2018an Ibilbidearen (27 upeltegi, 27 ostatu, 20 jatetxe, 6 ardotegi, aisialdiko 3 enpresa, 4 museo, ekintzen 3 enpresa eta nekazaritzako enpresa bat) handitze prozesuari ekin zieten klubeko partaideek, eskaintza garatu, sendotu eta handitzeko adostutako hitzarmenaren bitartez.

Klubeko kide dira, Erdialdeko Garapenerako Partzuergoa, Nafarroako Erriberako Garapenerako Estrategiaren Partzuergoa (EDER), Lizarraldeko Partzuergo Turistikoa, Xabierren Lurrak Partzuergo Turistikoa eta Nafarroako Jatorri Izendapeneko Kontseilu Arautzailea. Erdialdeko Garapenerako Partzuergo Produktu Turistikoaren Klubaren koordinaziorako sortutako entitatea da eta eurena da ardura.

Diru-laguntza honen helburua "Nafarroako Ardoaren Ibilbidea" produktu turistikoa garatzea da, hala nola, klubean parte hartzen duten kideen kopurua gehituz eta daudenen sendotzea bultzatuz; izan ere, horrelako turismo eskaintza batek enpresa turistikoa eta bestelako agenteak ere batu behar baititu (upeltegiak, ardotegiak, espezializatutako dendak, etab.).

Proiektuak produktu turistikoa bultzatzea du helburu eta oinarritzat hartzen ditu Nafarroako ardoaren kultura, helmuga turistikoa moduan dauden baliabideak antolatuz eta sektore turistikoa eta enologikoaren artean elkarlana bultzatuz, eskaintza enoturistikoa sortuz.

### 2018an egindako ekintzak

Pasaden 2018an sentsibilizazio, formazio, promozio, salerosketa eta profesionalizaziorako ekintzak burutu ziren. Sentsibilizazio ekintzen artean turismo eta enologia sektoreko kideekin egindako lan eta informazio bilerak dira nabarmentzekoak.

Formazio eta profesionalizazioari dagokioean, enologiaren inguruko

formazio saioak eskaini ziren (Nafarroako Jatorri Izendapeneko ardoen ezagutza ikastaroa, hostalaritzan ardoen erabilerak eta bertako produktuekin maridatzeak); kudeaketa eta antolaketan formazioa; eta produktu turistikoaren sorreran ikastaroa.

Promozioa eta salerosketei dagokionez, webgunearen hobekuntza nabarmendu daiteke, argazki artxiboaren sorrera, sare sozialen mantentzea, Enoturismoaren Europako Egunaren antolaketa eta mahats-biltze eta dastaketen programen koordinazioa.